



LIBURUA

# Zirriborro bat loreen gainean



## EZ DA ERDITZEA IONE GOROSTARZU

ELKAR, 2019

MADDI GALDOS ARETA

**A**zalak berak ematen du liburuan kontatzen denaren berri. Zirriborro bat ageri da lore batzuen gainean, zurrumbilo bat udaberrian. Horixe da Ione Gorostarzuren (Berastegi, 1984) *Ez da erditzea* (Elkar, 2019) poema-liburuak dakarkiguna: amatasunaren edo, oro har, emakumetasunaren ertzak eta argi-ilunak dira bildumaren ardatz.

Iraganetik, orainetik eta etorkizunetik begizatzen du idazleak Adrienne Richek amatasunaren instituzio gisa izendaturikoa, intimoaren eta globalaren arteko koordinatuetatik. Alabatasuna, haurdunaldia, erditzea eta gurasotasunaren inguruan gailentzen den kontakizunaren ifrentzu diren erru, damu, min, ezin eta beldurrak dira erdigunea, eta bereziki, amak ama soil ez direnaren aldarria. Baita, zentzu berean,

emakumeak amatasunaren, familiaren eta besteen bitartez definitzearen aurkako aldarria ere.

Ama ere baden ni poetikoak hezur-mamitzen du araua onartzearen eta hura arrakalatzerearen arteko tentsio konponezinak sortzen duen ezinegona: “Zenbateraino aldatu mundua ondorengoentzat / zenbateraino moldarazi ondorengoak, mundura”. Honekin, gaur-gaurkoz erantzun argirik ez duten galderak eta kezkek agertzen dira hitzotan, poetarenak ez ezik beste hainbat idazle eta irakurle andanarenak ere badirenak. Izan ere, Gorostarzuren hau amatasunaren idealizazioa auzitan jarritz emakumezko idazleek argitaratutako obren konstelazioan koka genezake: Alaine Agirreren *Karena* (Elkar, 2021) eta Katixa Agirreren *Amek ez dute* (Elkar, 2018) eleberriak eta Leire Bilbao-

ren *Etxeko urak* (Susa, 2020) poema-liburuarekin batera, besteak beste.

Poema batzuek lirikotasun handiagoa dute, bestetzuk narratiboagoak dira, eta erabiltzen dituen baliabide poetikoez topo egiten dute eguneroko gauzen arruntasunarekin.

Erantzunen xerka miatzeko bideak proposatzen ditu idazleak, amatasuna denaren eta izan zitekeenaren arteko zubia eraikitzeko birdefinizio ariketa eginez: “Eta jarri beharko dugu elkarrekin zalantzan / elkarrekin sortu zehaztu eta arautu beharko / egunero-egunero erabaki / zer den maitasuna guretzat”.

Esan bezala, ordea, erantzunak baino gehiago dira galderak. Ez, ordea, buelta emanda amu bilakatzen direnak, gizarteak egiten dizkigunen gisakoak; aitzitik, askatzea helburu duten galderak dira hauek, erronka itxura dutenak. ●